

2014/2015 ikasturtea

Euskal dantza eta bere ingurumena: sentsibilizazio ibilbidea

“Berritzearen zoroak liluratzen gaitu, baina sustraietara itzultzen gara behin eta berriz, uniformitatearen itsasoan berezituko gaituen ezaugarrien bila.” Oier Araolaza Arrietak hitz horiekin –besteak beste– hasten du euskal dantzari buruz egin duen lana¹.

Nortasunaren eta alteritatearen mugetan, arte “jakintsuaren” eta adierazpide herrikoien mugetan, kulturaren eta soziokulturaren mugetan, iraganaren eta orainaren mugetan, euskal dantza sarbide zoragarria da euskal kulturarantz – “unibertsalarekin” duen harremana barne–, folkloretik at ikustea onartzen duenarentzat. Euskal kultur erakundeak eta Iparaldeko Dantzarien Biltzarrak elkarrekin proposatzen dituzten “ibilbide” horien gaia da –Canopé (CDDP ohia) eta Ikas zentroaren laguntzarekin–; “ibilbideak”, aukeran, frantsesez edo euskaraz egiten ahal dira.

Euskal dantza, laburki

Aspaldiko garaietatik, emazte zein gizonek eman dantzaldietako dantzekin batean, Euskal Herriak gizonentzat bakarrik den koreografia arte bat garatu du. Errepertorio erritual hori, usu teknika mailan goi mailakoa, besta batzuen kariatara emana da, eta errespetatuak diren dantza maisuek transmititzen dute. Erritu horietarik bakoitzak –batzuk izugarri zaharrak– dantzarien inguruan elkartzen den komunitate bat biltzen du. *La Tradition de danse en Béarn et Pays Basque Français* kalitate handiko liburuan, Jeam Michel Guilcher-ek² ondare koreografiko horren originaltasuna aztertzen du: *“Biziki aberatsa den arte herrikoi horren jatorrian, azpimarratu behar da lehenik, behar direla ezin ukatuzko gaitasunak, eta goiztiarrak. Hori kontuan hartzeak ez du inola ere murrizten euskal tradizioa kontserbatzeko den ahal nabarmena, ezta ezeztatzen elementu biziki zaharrak hartzen dituela bere baitan. Onartu behar da bakarrik, bere baitan, kontserbatzeko baita ere jabetzeko ahal harrigarriak*

¹ *Euskal Dantza – La Danse Basque – Basque Dance*, Euskal Kultur Erakundearen webgunean telekargatu daitekeen lana : www.eke.org.

² Etnologo eta ohorezko ikerketa zuzendari CNRSen

dituela. (...) Baserrialdeko gizarte guti bada hain berritzailea dena, eta aldi berean bere ondareari eta baloreei atxikia."

Kanpoko modelo koreografikoei irekia –bereziki aristokraziarenak– euskal jendeak jakin du gortetik jaso dantzengan eragina ukaiten. Denek dakite *Pas de Basque* dantza klasikoko urratsa dela; gauza bera forma ikusgarriak har ditzakeen *Saut de Basque* urratsarentzat. Euskaldunek –eta bereziki gizonak– dantzarentzat duten pasioa azpimarratua izan da garai ezberdinetan, gure aroa baino lehenagoko lehen mendearen bukaeratik goiti hain zuzen, Estrabon, greziar geografoak zioen: *"gizonek aurrekua eramaten dute tronpeta batekin eta txirula baten soinuan ari dira dantzan, jauzi arinen bidez, gudu dantzak bailiran."*

Gaur egun, Lapurdi, Zuberoa eta Baxenabarreko 300.000 biztanleen artean, milaka dira euskal dantza erregulariki praktikatzen duten haur, gazte eta helduak; kuantitatiboki, lehen euskal kultura aktibitatea da³. Euskal dantzaldien errepertorioak, gizarte maila eta belaunaldi guztiak hunkitzen ditu, baita ere berrikitan Euskal Herrian instalatu diren jendeak, anitzetan, integratzeko eragile jostagarria delako. Baina jendea ohartzen ote da dantzaldietako euskal urrats asko dantza modelo arkaiko⁴ batetik datozen forma koreografikoak direla, zeinak komunzki praktikatuak ziren frantses gizarte osoan XV. mende bukaeratik XVI. mende hasierara?... Euskal Herrian, mendeetako tradizioak gutitan dira modaz pasatzen!

Artistikoki, 1950 eta 1970. hamarkadak, dudarik gabe, euskal dantza ikusgarrien urrezko aroa izan ziren. Ipar Euskal Herrian, bi konpainia izan ziren izarrak garai haietan: Etorki eta Oldarra. Haien ikusgarriak asko zabaldu ziren Frantzia eta atzerrian, maiz, leku entzutetsuetan: Théâtre des Champs Elysées, Théâtre de l'Etoile, Théâtre de l'Empire (Paris), Sadler's Wells Theater eta Théâtre Albert Hall (Londres), Théâtre de Welkom (Hegoafrika), Carnegie Hall (New York), Chicagoko opera, Théâtre Royal (Brusela), Teatro Coliseo (Buenos Aires), zenbait aipatzeko. Prentsan laudoriozko artikulua atera ziren (*Libération, Le Figaro, Le Monde, Combat, l'Humanité, New York Post, Chicago Sun Times, The Times...*), eta kritikari eta hain segur publikoaren suhertasuna erakusten dute. Tamalez, euskal dantzaren⁵ eragile nagusienek ez zuten jakin profesionaltasunaren bidea hartzen 1980. hamarkada hastapenean. Barneko tirabirek, konpainia profesional baten proiektua –beharbada Kultura Ministerioak sobera uzkurki eraman zuena– hastapenetik kondenatu zuten. Baina euskal dantza ikusgarriaren zinezko profesionalizazioa huts egiteak, ez du anbizio artistikoa deuseztatu. Batere ez. Han eta hemen, izan dadin Hego Euskal Herrian edo Ipar Euskal Herrian, euskal dantza ikusgarri zenbait gailentzen dira; bikaintasuna ez da gehiago utopia bat, baina batzuk lortzeko hurbil diren helburu bat, baina hori, lehenago beharrezko sinergia baterako baldintzak sortuz, lehengo huts beretan ez erortzeko...

Roger Goyhénèche

Euskal kultur erakundeko eta Iparraldeko Dantzaren Biltzarreko
Administrazioa Kontseiluetako kidea

³ Euskal hiztunez kanpo.

⁴ "Branleak" deitu dantzak.

⁵ Oldarra, Etorki, Orai Bat.

Euskal dantza kolegioan: egituraketa baten zirriborroa

- **Irakasgaiak:** frantsesa, euskara⁶, historia, kirola, arte plastikoak, musika heziketa, arteen historia: hainbat irakasgai zeinentzat euskal dantza segida konkretua den, eta zeini esker ikasgaien arteko lana erraza den.
- **Publikoa:** seigarreneko ikasleak
- **Pedagogia helburuak “Ibilbideen” arabera:**
 - ✓ **Dimentsio kulturala, historikoa, literarioa...:**
 - Euskal Herriko erritu nagusien ezagutza edo/eta sakontzea,
 - Euskal Herriko ondare koreografikoaren ezagutza,
 - Dantzaren leku berezia Euskal Herriko kultura ondarean,
 - Dantzaren harremana beste arte irakasgaiekin: musika, kantua, antzerkia...
 - ✓ **Dimentsio artistikoa:**
 - Dantza ikusgarrien ezagutza: “ikuslearen eskola”,
Esperimentazioa: dantzaren lehen irakaspenak (errepertorioaren oinarriak; musikalitatearen eta gorputz trebetasuna, dantzatu mugimenduaren bitartez...),
 - Sortze prozesu baten deskubritzea ikusle edo/eta eragile gisa.
 - ✓ **Dimentsio linguistikoa:**
 - “Ibilbideak” frantsesez edo euskaraz eginen dira. “Ibilbide” elebidunak egitea ere posible liteke.

“Ihauteriak” ibilbidea

- **Begiratu:** ohizko ihauteri bat edo batzuen ikustera joan: Lantz, Altsasu, Uztaritze, Eibar...
- **Egin:** ihauteri dantzen lehen irakaspenak euskal dantza tailer baten bidez: zenbait oreneko modulua, aditu batekin. Beste tailerrak: jantziak, maskak & osagarriak, musika. Forma eszenikotxo bat egitea ere posible liteke.
- **Aztertu:** ihauteriaren mito unibertuala ulertu bere euskal formen bidez (lekukoekin egon, erakusketa, bilketa...)

“Zuberotar maskarada, ihauteri berezia” ibilbidea,

- **Begiratu:** zuberotar maskarada baten ikustera joan.
- **Egin:** dantza “irrigarrien” lehen irakaspena, euskal dantza tailer baten bidez: zenbait oreneko modulua, aditu batekin. Beste tailerrak: jantziak, maskak & osagarriak, musika. Forma eszenikotxo bat egitea ere posible liteke.
- **Aztertu:** zuberotar maskaradaren osagai koreografiko eta satirikoak ulertu eta bertan datzan ihauteri erritua deszifratu (lekukoekin egon, erakusketa, bilketa...).

“Euskal dantza eszenaratua” ibilbidea

- **Begiratu:** euskal dantza ikusgarri baten ikustera joan.
- **Egin:** euskal dantzaren estetika zenbaiten lehen irakaspenak: zenbait oreneko modulua, aditu batekin. Beste tailerrak: jantziak, maskak & osagarriak, musika. Forma eszenikotxo bat egitea ere posible liteke.
- **Aztertu:** XX. mendean euskal dantzan izan den aldaketa ulertu (lekukoekin egon, erakusketa, bilketa...).

⁶ Hunkituak diren klaseentzat

● Euskal dantza kolegioan: metodologia

Gainean aurkeztu “Ibilbideak” adibideak baizik ez dira, hausnarketa bat abiarazteko gisan. “Ibilbide” bakoitza elkarrekin eraikiko da, bilduz:

- interesatua den irakaslea edo irakasle taldea,
- Euskal kultur erakundeko kultura bitartekaritza zerbitzua (Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren laguntzarekin).

“Ibilbide” bakoitza gauzatuko da ondoko hauen proposamenen bidez:

- Euskal kultur erakundea: ikusgarriak, errituak, erakusketak, hizlariak,
- Iparraldeko Dantzarien Biltzarra: euskal dantza tailerrak eramaten ahalko lituzketen dantzariak

“Ibilbideak”, Departamentuko Heziketa Proiektuaren (DHP) kariatara aurkezten ahalko dira. Horretarako, kultura eragileen sostenguz gain eta kolegioan bertan galdeginen diren diru-laguntzen gain, diru-laguntza bat galdeginen da:

- Pirinio Atlantikoetako Departamentuari
- Hezkunde Nazionalako Ministerioari
- Akitaniako Kultura Arazoen Eskualdeko Zuzendaritzari
- Euskararen Erakunde Publikoari (euskarazko “Ibilbideentzat”).

Horretarako, txosten bat (ekintza-fitxa) bete beharko dute elkarrekin, interesatuak diren irakasleek eta euskal kultur erakundeak. Txostena kolegioko zuzendariak beharko du Departamentuari aurkeztu 2014ko maiatzaren 31ko berantetik. Euskal kultur erakundeak dossier horren kopia bat igorriko du Akitania Eskualdeko Kultura Zerbitzuaren Zuzendaritzari.

Euskal kultur erakundearen arartekolaritza

Euskal kultur erakundeak esku hartzen ahalko du beste hiru ekintza posibilitateren arabera:

- **Baliabide gunea:** aholkularitza eta formakuntza sorkuntza euskal kulturari dagokionez, kultura eragileen bilaketa IDBrekin elkarlanean, irakasleen ezagutzak euskal kultur elementuei dagokienez, EAC ibilbidearekin lotuak diren ikusgarriak proposatu (besteak beste, EKEren webgunearen bitartez).
- **Asmatu eduki** berritzaile eta kulturalak kultura eragile eta erakunde desberdinekin : euskarri numerikoak, multimedia erakusketak, webografiak, proiektuari berariazkoa diren parte hartze artistikoak sortzea.
- **Laguntza** EAC ekintzarentzat: proiektuen gauzatzeko eta segimenduarentzat laguntza (salbu hunkituak diren lurraldeetan jadanik eskuduntzak badira –adb: herriko etxeetako eta herri elkargoetako Kultura zerbitzuetan–).

Baliabide iturriak

Euskal kultur erakundeak eta Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak egin proposamenen osagarri gisa, Pirinio Atlantikoetako DSDEN sarearen eta Bordeleko Akademiako Errektoretzaren partaidetzarekin, Pirinio Atlantikoetako Canopé sareak (CDDP ohia) eta IKAS pedagogia zerbitzuak euskal dantzaren erakaskuntzarentzat erabil daitezkeen baliabide pedagogikoak sortzen ahalko dituzte.

Halaber, Pirinio Atlantikoetako Canopé sareak eta IKAS pedagogia zerbitzuak baliabide kulturalak eta pedagogikoak antolatuko eta Web gunean ezarriko dituzte, heziketa komunitateari zabaltzeko.

Azkenik euskal dantzen inguruan antolatuak izan ziren bi egunei segida baten emaitako, 2014/2015 ikasturtean formakuntza batzu poposatuak izanen dira erakasleei, ohidura koreografikoetan adituak/ direnak gomitatuz, dantza tradizionalaren inguruko lehen urratsak ezagutzeko eta dokumentu baliabideak deskubritzeko.

Xehetasun gehiagorentzat :

Euskal kultur erakundea/Institut culturel basque

05 59 93 25 25 – hezkuntza@eke.org